

Sakanerak

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON*

SAKANAKO HIZKEREI BURUZKO AZTERKETA ZENBAITEN
ARABERAKO KOKAPEN DIALEKTOLOGIKOAK

1. L. L. Bonaparte Printzea

Bonapartek, hasiera batean, kidetasunak ikusi zituen nonbait Sakana erdialdea eta Arakilgo hizkeren artean eta desberdintasunak, aldiz, Burundakoarekin Echeniqueri 1864ko otsailaren 8an bidalitako gutunean ikus daitekeen moduan, geroxeago ideiaz aldatu bazuen ere:

A Echarri-Aranaz on parle la variété de la vallée d'Araquil (Ipar Goi-Nafarreren barruan sartu zuen Arakilgoa), qui est bien différente de celle de la Burunda pour les lettres et les changements euphoniques (...). Il pourrait se faire qu'à Echarri-Aranaz on ait adopté quelques formes de la Borunda; mais en général on y parle l'araquilais et non pas le burundais (Urquijo, J., “Cartas escritas por el príncipe L.-L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores”, RIEV, 2, 276).

Burundakoa bertakoa ere, nafartzat hartu zuen aurreko urteko apirilean bidalitako gutunean, Etxarri Aranatzetik Uharte Arakilerainoko hizkeraz desberdinduz, hala ere:

Le dialecte de la Burunda constitue un sous-dialecte distinct du navarrais. A Lacunza les changements euphoniques n'existent pas; il en est de même à Huarte Araquil jusqu'à Echarri Aranaz inclusivement (Urquijo, J., RIEV, 2, 263-264).

Gorabehera ugari izan zituen aurrerantzean ere, azken sailkapena burutu arte 1869. urtean:

- Etxarri Aranazko eta Burundako hizkeren arteko kidetasuna azpimarratu zuen 1864ko martxoaren 7an:

Il paraît en effet qu'à Echarri-Aranaz on suit plutôt les changements euphoniques de la Burunda que ceux de Huarte-Araquil.

* Euskal filologian doktorea.

- Burundako hizkera eta Arakilgoa gipuzkeraren barruan sartu zituen 1864ko azaroaren 7an:

En effet les deux versions (Urdiain eta Etxarri Aranazko doctrinez ari zaigu) que je reVois m'apprennent que dans la Burunda et dans la vallée d'Araquil on ne parle pas le navarrais, mais un sous-dialecte ou une variété guipuscoane.

- 1864ko abenduaren 31ko gutunean, berriz, Etxarri Aranazko hizkera Burundakoa eta Arakilgoaren arteko zubi-hizkeratzat hartu zuen:

Echarri-Aranaz représente assez bien le basque de la vallée d'Araquil, mais les euphonies ou changements euphoniques de cette localité sont plutôt ceux de la Borunda; de sorte qu'il forme la transition du borundais à l'araquilais que je considère comme deux variétés distinctes du guipuscoan parlé dans la Navarre.

Hemendik aurrera, euskalki desberdinatan sailkatuko zituen Burunda eta Arakilgo hizkerak, eta baita Etxarri Aranatz eta Ergoienekoak ere, goi-nafarreraren barruan Arakilgoa eta gipuzkeraren barruan besteak. Arbizun, alde batetik, eta Etxarri Aranatz eta Ergoienen bestetik, paratu zuen, beraz, gipuzkera eta goi-nafarreraren arteko muga.

2. K. Zuazo

Bonaparte Printzearen sailkapenak indarrean iraun du duela urte gutxi arte euskal dialektologiaren baitan, Koldo Zuazo hizkuntzalaria Euskalkiak gaur (1998) lana aurkeztu zuen arte, hain zuzen ere. Dialektologo honek aurkeztutako mapan, Sakana erdialdeko hizkera (Etxarri Aranatzetik ekialdera) nafarreraren barruan sartu zuen, erdialdeko hizkeraren zenbait ezaugarri ere badituela gaineratuz:

... eta Sakanara ere iristen dira erdialdeko ezaugarrietako asko, baina ez, nire ustez, eremu horretan bete-betean sartzeko adina. Erdialdeko hizkeren eta nafarreraren 'tarteko' hizkerak dira, beraz, hauek (Euskalkiak gaur, 1998, 228).

Zuazok, aurreko lan batean (Burundako hizkera), hurrengo ondorioa ate-ra zuen:

Gauzak horrela, ez dirudi aurrera begira Bonapartek asmatutako 'Nafarroako gipuzkera' azpieuskalkiari eutsi dakiokeenik. Etxarrin hasi eta handik ekialderako hizkerak 'goinafarrera' garbitzat joko genituzke guk geuk. Horretaz gain, ez zaigu oso ziurra iruditzen Etxarri-Ergoiena eta Arbizu arteko muga (K. Zuazo, 1995, 360).

Burundako hizkerari dagokionez, berriz, zubi-hizkeratzat du berau, nafarrera, erdialdea eta mendebaldeko hizkeren artean zubi lanak egiten dituela burunderak dioskularik.

Bestalde, desberdinak dira aldameneko hizkerak diren Burunda eta Sakana erdialdeko, eta ondorio hauxe bera atera zuen K. Zuazok 'Euskalkiak gaur' bere lanaren bukaeran:

Burundako hizkera hau dela eta, ohar bat egin nahiko nuke. Sakanako gainerakoena aldean oso desberdina da hemengo hizkera eta, Bonapartek gi-

puzkeraren barruan kokatu zuen arren, bere aldameneko Goierrikoekin alderatuta, oso bestelakoa azaltzen da (K. Zuazo, 1998, 225).

3. J. L. Erdozia

2001ean, *Sakana erdialdeko hizkera* tesilanean, Etxarri Aranaztik Uharte Arakilerainoko eremuan, tokian tokiko berezitasunak berezitasun, funtsean hizkera bat erabiltzen dela esan zuen Erdoziak, eta hizkera hori, Zuazok egin-dako sailkapenaren arabera, nafarrera euskalkikoa da.

Bestalde, 2002an, FLV aldizkarian argitaratutako *Bakaikuko hizkera* artikuluan, hizkera hauxe, dudarik gabe, burunderaren barruan kokatu zuen, eta hau zubi-hizkera izanik, hizkerakide dituen herrietakoek baino are gehiago egiten dituela zubi lanak bakaikuerak aldameneko Sakana erdialdekoarekiko gaineratu zuen.

Azkenik, 2004an, eta hau ere FLV aldizkarian argitaratutako *Irañetako hizkera* artikuluan, ‘irintera’ Sakana erdialdeko beste herrietakoak bezalakoa dela baiezatzen du autoreak, eta errortazismoa azaltzen duten burutzapen zenbaitek, besteak beste, erakusten digutela, continuum geolektalaren teoria jarraituz, Arakilgo euskararekin eta hego-goinafarrerarekin egiten zuela lotura.

SAKANAKO HIZKEREN EZUGARRI-ALDERAKETA

Lau zutabe dituen taula batean bilduta azalduko ditut jarraian Sakana osoko hizkeren ezaugarri nabarmenenak. Ezaugarriak, bi eremu nagusietan banaturik ageri dira: Burunda eta Sakana erdialdea, gaur egun Arakilen ez baitago inongo herrian bertako euskara bizirik. Hala ere, eta zubi-hizkerak diren neurrian, bi eremu horietako bazterretako hizkerak ere (Bakaiku eta Irañeta) nabarmendu ditut continuum geolektalaren teoria azpimarratzeko.

Ezaugarriak lau multzotan bildurik ageri dira:

- A.- Bokalismoa eta kontsonantismoa: hemeretzi ezaugarri.
- B.- Ezaugarri morfologikoak: hogeita hamahiru ezaugarri.
- C.- Sintaxi mailako ezaugarriak: bost ezaugarri.
- D.- Lexikoari dagozkion ezaugarriak: esparru osoko lexiko komuna eta lexiko alderaketa.

Azkenik, E hizkiarekin, lexikoaren ondoren, *Zenbat buru hainbat aburu* ataltxoa jarri dut, ikusteko zer nolako ‘polifonia’ dugun Sakanako eremuan zenbait burutzapenen kasuan: zenbat herri, hainbat burutzapen ia-ia.

BURUNDA	Bakaiku	SAKANA ERDIALDEA	Irañeta- Arakil
A. Bokalismoa eta kontsonantismoa			
<ul style="list-style-type: none"> • A1. a + a (> -ea) > -ia disimilazioa: <i>euskeria</i> (euskara), <i>gitarria</i> (guitarra), <i>festia</i> (festa), <i>elizia</i> (eliza), <i>plazia</i> (plaza), <i>bandia</i> (banda), <i>gauzia</i> (gauza)... 	Baina <i>ama</i> .	<ul style="list-style-type: none"> • a + a > -a / V_[+goi]C₋: <i>auskera</i>, <i>gitarra</i>, <i>festa</i>, <i>elizale</i>, <i>plaza</i>, <i>banda</i>... 	
<ul style="list-style-type: none"> • A2. Ez da bokal asimilaziorik: <i>izurratu</i> (izorratu), <i>mendiya</i> (mendia), <i>egun bat</i>, <i>izan</i>, <i>ikasi</i>... 	Baina <i>mendiyek</i> (mendiak), <i>orduben</i> (orduan)...	<ul style="list-style-type: none"> • -a > -e /V_[+goi] C_(C) asimilazioa: (Etxarrin, Lizarragan, Lakuntzan, Uharten eta Irañetan beti: <i>izurretu</i>, <i>mendiye</i>, <i>egun bet</i> (egun bat), <i>izen</i> (izan), <i>ikesi</i> (ikasi)...; gainerakoetan kontsonantez bukatuz gero: <i>mendiya</i>, <i>mendiyek</i>, <i>eskuba</i> (eskua), <i>eskubek</i> (eskuak)... 	Urritzolan ere kasu guztietan: <i>aitte</i> (aita), <i>aizpe</i> (ahizpa), <i>pusketu</i> (puskatu), <i>Afriken</i> (Afrikan), <i>billetu</i> (bilatu), <i>mutil bet</i> (mutil bat), <i>destinetu</i> (destinatu), <i>illebete</i> (hilabete)...
<ul style="list-style-type: none"> • A3. ei > ai diptongo irekiera sistematikoa: <i>araitz</i> (haritz), <i>bain</i> (behin), <i>bairatu</i> (begiratu), <i>maikuba</i> (medikua), <i>mintaiya</i> (mintegia), <i>aizien</i> (ehizan), <i>dai</i> (dei), <i>errainu</i> (erreinu), <i>besolai</i> (besalei), <i>nafarrai</i> (nafarreri), <i>tai</i> (tegi), <i>gayo</i> (gehiago)... 		<ul style="list-style-type: none"> • Anekdotikoa baino ez: <i>aizien</i> (ehizan), <i>axai</i> (azeri)... 	
<ul style="list-style-type: none"> • A4. ai > ei diptongo itxiera ez: <i>bai</i>, <i>jai</i>, <i>mai</i> (mahai), <i>nai</i> (nahi), <i>naiz</i>, <i>baindo</i> (baino)... 		<ul style="list-style-type: none"> • ai > ei diptongo itxiera sistematikoa: <i>bei</i> (bai), <i>jei</i> (jai), <i>mei</i> (mahai), <i>nei</i> (nahi), <i>neiz</i> (naiz), <i>lasei</i> (lasai), <i>Bakeiku</i> (Bakai-ku), <i>txertxei</i> (txerrizain), <i>nolabeitt</i> (nolabait), <i>beño</i> (baino)... 	Irañetan hautazkoa suertatzen da: <i>bai</i> , <i>jai</i> , <i>lasai</i> , <i>Bakaiku</i> ..., <i>baina mei</i> , <i>nei</i> , <i>izein</i> (izain), <i>meiz</i> (maiz), <i>usei</i> (usain)...
<ul style="list-style-type: none"> • A5. eu > au diptongo irekiera hautazkoa: <i>auri</i> (euri), <i>auli</i> (euli), <i>naurri</i> (neurri), <i>autsi</i> (eutsi), <i>zauken</i> (zeukan)...., <i>baina euskiaz</i> (euskaraz), <i>egun</i> (ehun), <i>legun</i> (leun)... 		<ul style="list-style-type: none"> • eu > au diptongo irekiera sistematikoa: <i>auri</i>, <i>auli</i>, <i>aultxo</i> (eltxo), <i>laurri</i> (neurri), <i>auski</i> (eutsi), <i>auskias</i> (euskaraz), <i>aun</i> (ehun), <i>laun</i> (leun), <i>auntzi</i> (eultzi)... 	Irañetan <i>auli</i> baina <i>eltxo</i> .

BURUNDA	Bakaiku	SAKANA ERDIALDEA	Irañeta- Arakil
<ul style="list-style-type: none"> A6. e > a / l_́ bilakabidea maiztasun handikoa: <i>aguardi</i> (eguerdi), <i>eskarrikasko</i> (eskerrikasko), <i>maitzarra</i> (maizterra), <i>izardi</i> (izerdi), <i>muskar</i> (musker), <i>infarnu</i> (infernu), <i>baztar</i> (bazter)... A7. -a organikoa mantendu: <i>gauza bat</i>, <i>eliza bat</i>, <i>makila bat</i>... 		<ul style="list-style-type: none"> Anekdotikoa: <i>baztar eta asarre</i> (haserre) baino ez ditugu jaso. 	
<ul style="list-style-type: none"> A8. Aferesi eta sinkoparik ez. 	<p>Ohikoenak soilik: <i>ta</i> (eta), <i>re</i> (ere), <i>jito</i> (ijito), <i>zazu</i> (ezazu), <i>txikori</i> (atxikoria), <i>kordiona</i> (akordiona), <i>andre</i> (andere), <i>bedratzi</i> (bederatzzi), <i>sobre</i> (sobera ere), <i>txertxai</i> (txerrizain), <i>pezta</i> (pezeta), <i>ekarko</i> (ekarriko), <i>etorko</i> (etorriko)...</p>	<ul style="list-style-type: none"> -a organikoa maiz galdu: <i>gauz bet</i> (gauza bat), <i>eliz bet</i> (eliza bat), <i>makil bet</i> (makila bat), <i>anei bet</i> (anaia bat)... Lakuntzatik ekialdera barrabarra: <i>man</i> (eman), <i>men</i> (omen), <i>Metterio</i> (Emeterio), <i>karri</i> (ekarri), <i>torri</i> (etorri), <i>san</i> (esan), <i>atra</i> (atera), <i>pastu</i> (pasatu), <i>libru</i> (liburu), <i>botzen</i> (botatzen), <i>gerna</i> (garrena), <i>barna</i> (barrena)... Etxarrin, Arbizun eta Ergoienen ohikoenak eta besteren bat. 	<p>Urritzolan ere barrabarra: <i>torri</i>, <i>in</i> (egin), <i>pezta</i>, <i>pastu</i>...</p>
<ul style="list-style-type: none"> A9. Ez da palatalizazioa edo bustidurak gertatzen, adierazkorra ez bada: <i>oiло</i>, <i>gaztaina</i>, <i>makila</i>, <i>ito</i>, <i>bilatu</i>, <i>baindo</i> (baino), <i>mina</i>, <i>goiti</i> (goitik)... Baina <i>pattarra</i>, <i>pattal</i>, <i>axei</i> (azeri), <i>txulo</i> (zulo), <i>txelaya</i> (zelaia)... A10. -nd- kontsonante taldea usu ageri da i bokalaren ondoren: <i>baindo</i> (baino), <i>oindo/guaindo</i> (oraino), <i>gindan</i> (ginen)... 		<ul style="list-style-type: none"> Palatalizazioa edo bustidura sistematikoa da eremu osoan: <i>ollo</i>, <i>gazteiñela</i>, <i>makillela</i>, <i>itto</i>, <i>billetu</i>, <i>beño</i>, <i>miñela</i>, <i>goitti</i>... Eta baita <i>pattarra</i>, <i>pattal</i>, <i>axai</i>, <i>txulo</i>, <i>txeleyela</i>... Ez da horrelakorik, sudurkaria palatalizaturik baizik: <i>beño</i> (baino), <i>guaño</i> (oraino), <i>giñen/giñan</i> (ginen)... 	

BURUNDA	Bakaiku	SAKANA ERDIALDEA	Irañeta- Arakil
<ul style="list-style-type: none"> • A11. <i>z + z > tz</i> (txistukari afrikatua): <i>etzon</i> (ez zegoen), <i>etzitzayon</i> (ez zitzaison), <i>etzan</i> (ez zen)... Era berean, <i>n/l/r</i> ondoren afrikatuak erabiltzen dira: <i>Altsasu</i>, <i>pentsuba</i> (pentsua), <i>faltsua</i> (faltsoa), <i>bertsolaya</i> (bertsolaria)... • A12. <i>l/n</i> txandaketa, sudurkariaren alde: <i>narruba</i> (larraua), <i>naurriya</i> (neurria), <i>nazka</i>... • A13. <i>d/r</i> txandaketa, hortzetakoaren alde: <i>edariya</i> (edaria), <i>idiya</i> (idia), <i>etor adi</i> (etor hadi), <i>bedinkatua</i> (bedeinkatua)... • A14. <i>b/p/f</i> txandaketa, egoera nahasia: <i>bake</i>, <i>kafi</i> (habia), <i>barre</i>, <i>festa</i>, <i>pago</i>, <i>paaxi</i> (pagatxa)... 	<p>Bakaikun frikaria erabiltzen da: <i>ezon</i>, <i>ezakiyon</i>, <i>ezan...</i></p> <p>Egoera nahasia erakusten du: <i>pentsatu</i>, <i>pentsuba</i>, <i>altsasuarra</i>, <i>faltsua...</i> baina <i>salsa</i> (saltsa), <i>jersia</i> (jertsea), <i>zarzuela</i> (zahartzaroa), <i>bizerzuba</i> (bizartsua), <i>marsuba</i> (martxoa), ...</p>	<ul style="list-style-type: none"> • <i>z + z > z</i> (txistukari frikaria): <i>ezoon</i> (ez zegoen), <i>ezakiyon</i> (ez zitzaison), <i>ezan/ezen</i> (ez zen)... • <i>n/l/r</i> ondoren beti frikaria: <i>Alsasu</i>, <i>pensubela</i>, <i>falsuela</i>, <i>bersolayela</i>, <i>zarzaruela</i> (zahartzaroa), <i>franzesa</i> (frantsesa), <i>bizerzubela...</i> 	

BURUNDA	Bakaiku	SAKANA ERDIALDEA	Irañeta- Arakil
<ul style="list-style-type: none"> A15. Hasierako <i>e</i>-bokalaren itxiera: <i>iruzki</i> (eguzki), <i>inara</i> (enara), <i>iyo</i> (igo), <i>inbiya</i> (indidia).... Itxiera eta ondorengo kontsonantizazioa: <i>yantzun</i> (erantzun), <i>yaztun</i> (eraztun), <i>yan</i> (edan), <i>yakusi</i> (erakutsi), <i>yosi</i> (erosi).... A16. Ez da <i>o</i> > <i>au</i> diptongazioa gertatzen: <i>ontzi</i>, <i>ospel</i>, ... baina bai behin gutxienez <i>u</i> > <i>au</i>: <i>autzi</i> (utzi) A17. <i>o</i> > <i>u</i> / <i>_n</i> bilakabidea: <i>nun</i> (non) eta eratorri guztiak, <i>trunku</i> ('tronco', enbor).... A18. <i>-on</i> bukaeradun maileguak: <i>xagonia</i> (xaboi), <i>kamiona</i> (kamioi), <i>montona</i> ('montoi'), <i>frontona</i> ('frontoia'), <i>kañona</i> (kanoia), <i>klariona</i>, <i>balkonia</i> (balkoia)... <p>19. Ez da errotazismorik.</p>	<p>Bakaikun <i>yuntzi</i> (ontzi) ere bai.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Ia sistematikoa: <i>iruzki</i>, <i>iñere</i>, <i>iye</i> (ea/ia)), <i>iyo</i>, <i>inbiyela</i>, <i>itxe</i> (etxe, Arbizutuk ekialdera), <i>irui/idui/idugi</i> (eduki, Arb, Un, Uh), ... Egoera nahasiagoa kontsonantizazioarekin: <i>yakusi</i> (Etx, Liz, Lak) / <i>aakusi</i> (Arb, Un, Do, Ir) / <i>leakusi</i> (Arr, Uh), <i>yosi</i> (Etx, Liz, Lak) / <i>oosi</i> (Arb, Un, Do) / <i>erosi</i> (Ir) / <i>eosi</i> (Arr, Uh). <i>o</i> > <i>au</i> diptongazioa: <i>aungi</i> (ongi), <i>auntzi</i> (ontzi), <i>auspel</i> (ospel)... eta baita behin gutxienez <i>u</i> > <i>au</i>: <i>autzi</i>. Burundan bezala. Maileguen bukaerari dagokionez, Burundan bezala: <i>jabona</i>, <i>balkona</i>, <i>klariona</i>, <i>kamiona</i>, <i>montona</i>... Uharte Arakilen ageri dira lehen errotazismo aztarnak: <i>ortzilare</i> (ostiral), <i>ortots</i> (ostots)... 	<p>Irañetan <i>auntzi</i> baino ez dugu jaso.</p>
B. Ezaugarri morfologikoak			
<ul style="list-style-type: none"> B1. Edute genitiboaren pluraleko morfema - <i>ein/-ain</i>: <i>txerriyein</i> (txerrien), <i>ebein</i> (haien), <i>semiaín</i> (semeen), <i>gizonain</i> (gizonen)... 		<ul style="list-style-type: none"> Unanun eta Dorraon soilik Burundan bezala, disimilaturik. Gainerakoan <i>-en</i> da morfema. 	<p>Irañetan <i>ortzillere</i>, <i>ertsí</i> (itxi), <i>ortots</i>, <i>ortots erauntzi</i>, <i>martutse</i> (masusta)... Ihabarren <i>erran</i>.</p>

BURUNDA	Bakaiku	SAKANA ERDIALDEA	Irañeta- Arakil
<ul style="list-style-type: none"> • B2. Datibo pluraleko morfema <i>-airi</i>: <i>dianairi</i> (direnei), <i>mutilairi</i> (mutilei), <i>ganaubeiri</i> (ganaduei)... • B3. Soziatiboko morfema beti <i>-kin</i>: <i>ardiyekin</i> (ardiekin), <i>launekin</i> (lagunekin), <i>gizonekin</i>... • B4. Instrumentalaren morfema <i>-z</i> da: <i>mendiyez</i> (mendiaz), <i>elurrez</i>, <i>gizonaz</i>, <i>etxez etxe</i>, <i>askoz</i>... • B5. Destinatiboaren morfema <i>-endako</i>, <i>-aindako</i> pluralean: <i>semiendako/semaiindako</i> (semearentzat), <i>gizonenda -ko/gizonaindako</i> (gizonarentzat)... • B6. Prolatiboko morfema <i>-tako</i>: <i>semetakoa</i>, <i>meikutako</i> (medikutako), <i>alkatetako</i>... • B7. Inesiboak eta leku-genitiboak, bizidunei egokitutakoak, <i>-(e)n baitan/baitako</i>: <i>semien baitan/baitako</i> (se-mearen baitan/baitako), <i>amaan baitan/ baitako</i> (amaren baitan/baitako)... • B8. Ablatiboko eta motibatiboko morfemak <i>-tik</i> eta <i>-engaitik</i> dira: <i>menditik</i>, <i>semiengaitik</i> (semearengatik)... 	<p>Bakaikun, oso gutxitan, bukaeran sudurkaririk gabe: <i>ardiyeki...</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> • Esparru osoan <i>-ei</i> morfema erabiltzen da. • Soziatiboko morfemak ez du sudurkaririk bukaeran, beraz <i>-ki</i> da: <i>ardiyeki</i>, <i>launeki</i>, <i>gizoneki</i>, <i>amaaki</i> (amarekin)... • Instrumentalaren morfema <i>-s</i> da: <i>mendiyes</i>, <i>elurres</i> (elurrez), <i>gizonas</i> (gizonaz), <i>etxes etxe</i> (etxez etxe), <i>askos</i> (askoz)... • <i>-endako</i> morfema: <i>semiendako</i>, <i>gizonandako/gizonendako</i> ... • Burundan bezala. • Burundan bezala, baina palatalizaturik: <i>semien beitten/ beitteko</i> (semearen baitan/ baitako), <i>amaan beitten/ beitteko</i> (amaren baitan/baitako)... • Morfema bukaeran ez da kontsonante herskaririk: <i>mendit(t)i</i> (menditik), <i>semiengati</i> (semearengatik)... 	<p>Irañetan, berriro ageri dira herskaridun morfemak: <i>mendittik</i>, <i>semiengatik</i>...</p>

BURUNDA	Bakaiku	SAKANA ERDIALDEA	Irañeta- Arakil
<ul style="list-style-type: none"> B9. Adlatibo bukatuzkoaren morfema <i>-aino</i> da Burundan: <i>zeruaindo</i> (zeruraino), <i>etxaiaindo</i> (etxeraino), <i>mendiaindo</i> (mendiraino)... B10. Moduzko aditzondoak sortzeko morfema <i>-tol/-do</i>: <i>txarto</i>, <i>ondo</i>, <i>obeto</i> (hobeto)... B11. Ehuneko zenbatzaileak ohikoak eta <i>aldiz</i> partikulaz osaturikoak dira: <i>bi aldiz egun</i> (berrehun), <i>iru aldiz egun</i> (hirurehun), <i>lau aldiz egun</i> (laurehun)... 		<ul style="list-style-type: none"> Palatalizaturik erabiltzen da <i>-aino</i> morfema: <i>zerueño</i> (zeruraino), <i>etxiaño</i> (etxeraino), <i>mendieño</i> (mendiraino)... Morfema eratorlea <i>-gi/ki</i> da: <i>txarki</i>, <i>aungi/ongi</i>, <i>obeki</i> (hobeki)... Ehuneko ohiko zenbatzaileez gain ondorengoak erabiltzen dira: <i>bitenaun</i> (bietan ehun, berrehun), <i>irutenaun</i> (hiruretan ehun, hirurehun), <i>lautenaun</i> (lauretan ehun, laurehun), <i>bostenaun</i> (bostetan ehun, bostehun), <i>seitenau</i> (seietan ehun, seichun), <i>zazpitenaun</i> (zazpietan ehun, zazpiehun), <i>zortzitenaun</i> (zortzietan ehun, zortzichun), <i>bedratzitenaun</i> (bederatzietan ehun, bederatziehun). 	
<ul style="list-style-type: none"> B12. Ugaritasuna adierazteko atzizki eratorlea <i>-di</i>: <i>araizdiya</i> (hariztia), <i>pagadiya</i> (pagadia), <i>sagardi</i> (sagasti), <i>sasidiya</i> (sasidia)... B13. Aditzaren pluraleko bigarren pertsonako morfema <i>-zei</i>: <i>dezei</i>, <i>tuzei</i>, <i>zaizei</i>, <i>zakizein</i>... 	Bakaikun, egoera nahasia: <i>ondo</i> , <i>obeto</i> baina <i>txarki</i> .	<ul style="list-style-type: none"> Morfema eratorlea <i>-dei</i> (-degi) da: <i>arizdei</i>, <i>fagadei</i>, <i>saardei</i>... <i>-zub(i)e/-zie</i> (Erg) da morfema: <i>dezubiel/duzub(i)e/dezie</i> (duzue), <i>dakizub(i)e/dakizie</i> (zaizue), <i>zakizub(i)en/zakizien</i> (zitzaizuen)... 	Hamarrekoen artean, ondorengo zenbatzaileak erabiltzen dira Irañetan: <i>irutan hogei</i> (hiruretan hogei, hirurogei), <i>lautan hogei</i> (lauretan hogei, laurogei).
	Bakaikun <i>zai</i> : <i>dezai</i> (duzue), <i>dazai</i> (nauzue, diozue), <i>datzazai</i> (dizkiozue)		Irañetan <i>-zte</i> : <i>duzte</i> (duzue), <i>ttuzte</i> (dituzue), <i>dakizte</i> (zaizkizue), <i>zakizten</i> (zitzaizuen)...

BURUNDA	Bakaiku	SAKANA ERDIALDEA	Irañeta- Arakil
<ul style="list-style-type: none"> B14. Aditzaren pluraleko hirugarren pertsonako morfema <i>-ei</i>: <i>dei</i> (dute), <i>nindukei</i> (nindutene), <i>tubei</i> (dituzte)... B15. ‘Eduki’ aditzaren pluralgilea <i>-zki</i>: <i>dukazki</i> (dauzka), <i>dukazkizu</i> (dauzkazu)... B16. NN_k erako laguntzailearen pluralgilea <i>-z</i>: <i>genduzen</i> (genituen), <i>zenduzen</i> (ze-nituen)... B17. NN_iN_k sailean <i>-tzi</i>- pluralgilea: <i>deatzit</i> (dizkiot)... B18. NN_i saileko aditz laguntzaileak <i>-i</i>- morfema darama: <i>zait</i>, <i>zayo</i> (zaio), <i>zaizei</i> (zaizue), <i>zitzaiten</i> (zitzai-dan), <i>zitzaison</i>... B19. Alokutiboetan <i>j</i>-: <i>jitun/k</i> (ditin/k), <i>jak/n</i> (ziok/n), <i>jituat/nat</i> (ditiat/nat)... B20. Nafarrerako hegoaldeko hizkeretan bezala <i>partizipio</i> + <i>-ta(-da)</i> egituraz gain, <i>partizipio</i> + <i>-(r)ik</i> ere oso zabaldua dago: <i>jarriik doo</i> (jarririk dago), <i>einik dekau</i> (eginik daukagu)... 	<p>Bakaikun:</p> <p><i>dekazki</i>, <i>dekazkizu</i>...</p> <p>Bakaikun:</p> <p><i>ginduzen</i>, <i>zinduzen</i>...</p> <p>Bakaikun, <i>-tza</i>:</p> <p><i>datzat</i> (dizkiot)...</p> <p>Lehen aldian <i>-ki</i>- morfemadun formak: <i>zakiten</i> (zitzaidan), <i>zakiyon</i> (zitzaison), <i>zakizein</i> (zitzaiuen)...</p>	<ul style="list-style-type: none"> <i>-b(i)e</i> (Etx, Lak) / <i>-r(i)e</i> (Erg) / <i>-yue</i> (Arb) dira morfemak: <i>dooob(i)e/doorie/diyue</i> (dio-te)... Sakanan, bestela <i>-z</i>:- <i>dazka</i> (dauzka), <i>dazkazu</i> (dauzkazu)... Sakana erdialdean <i>-zki</i>:- <i>giñuzkiyen</i> (genituen), <i>ziñuzkiyen</i> (zenituen)... Sakana erdialdean <i>-tza</i>- <i>eta -zki</i>:- <i>dootzat</i> / <i>doozkiyot</i> (diz-kiot)... NN_i sailekoak <i>-ki</i>- erroa daramate orain eta lehen aldian: <i>dakit</i> (zait), <i>dakizu</i> (zaizu), <i>dakiyob(i)e</i> (zaie), <i>zakitten</i> (zitzaidan), <i>zakizubien</i> (zitzaiuen)... Alokutiboetan <i>z</i>-: <i>zituk/n</i> (ditik/n), <i>ziok/n</i>, <i>zittubet/net</i> (ditiat/nat)... Burundan bezala. 	<p>Irañetan <i>-te</i>: <i>deete</i> (didate), <i>diote</i>, <i>diaute</i> (digute)...</p> <p>Irañetan, Burundan bezala: <i>giñuzen</i> (genituen), <i>ziñuzen</i> (zenituen)...</p> <p>Irañetan, berriz, <i>-it</i>:- <i>ttiot</i> (dizkiot)</p> <p>Irañetan <i>dakizte</i> (zaizue), <i>zakizten</i> (zitzaiuen)...</p> <p>Irañetan <i>ttik/n</i> (ditik/n), <i>ziok/n</i>, <i>ttiet/ñet</i> (ditiat/ nat)...</p> <p>Bestalde <i>-k</i> morfema maskulinoaren ordez zenbaitetan <i>-t</i>: <i>ziotet</i> (zioat), <i>ziotau</i> (zioagu)...</p>

BURUNDA	Bakaiku	SAKANA ERDIALDEA	Irañeta- Arakil
<ul style="list-style-type: none"> B21. Partizipoetan <i>-atu</i> > <i>-au</i> bilakabidea: <i>bueltau</i> (bueltatu), <i>faltau</i> (faltatu), <i>gustau</i> (gustatu), <i>arrapau</i> (harrapatu), <i>asarrau</i> (haserretu), <i>eskau</i> (eskatu)... B22. Lehen aldiako aditz formetan <i>-e-</i>: <i>genduben</i> (genuen), <i>zenduben</i> (zenuen), <i>genduzen</i> (genituen)... B23. 'Joan' aditzak forma bakarra: <i>niyu</i> (noa), <i>diyu</i> (doa), <i>ziyun</i> (zihohan)... B24. NN_k eran <i>-o-</i> eta <i>-e-</i> erroak: <i>dot</i> (dut), <i>dok-n</i> (duk-n), <i>dezu</i> (duzu), <i>dezai</i> (duzue). B25. Partizipoetan <i>-i</i> bokalaren sinkopa: <i>ikus dot</i> (ikusi dut), <i>ekar tut</i> (ekarri ditut), <i>etor ber dik</i> (etorri behar dik)... B26. Ez dago partizipio analogikorik: <i>izan</i>, <i>yon</i> (egon), <i>jakin</i>, <i>ibili</i>... B27. Moduzko aditzondoak burutzeko <i>- (ka)kan</i> morfema: <i>arrastakan</i> (herrestan), <i>korrikan</i> (korrika), <i>banakan</i> (banaka), <i>inbuluskakan</i> (itzu-lipurdika), <i>ozkakan</i> (koskaka), <i>furrutakan</i> (zurrutaka), <i>arrikan</i> (harrika)... 	Bakaikun <i>-atu</i> . Bakaikun <i>-i</i> : <i>ginduben</i> , <i>zinduben</i> ...	<ul style="list-style-type: none"> Sakanan, bestela <i>-atu</i>: <i>bueltatu</i>, <i>faltatu</i>, <i>gustetu</i>, <i>arrapatu</i>, <i>asarratu</i>, <i>eskatu</i>... Sakanan, bestela <i>-i</i>: <i>giñu-(b)en</i> (genuen), <i>ziñu(b)en</i> (zenuen), <i>giñuzki(y)en</i> (genituen)... Bi burutzapen forma bakoitzeko: <i>nue/niyue</i> (noa), <i>due/diyue</i> (doa)... Etxarrin <i>-e-</i>, Ergoienen Burundan bezala eta gainerakoan <i>-u</i>: <i>det/dot/dut</i> (dut)... Burundan bezala: <i>ikus det/dot/dut</i>, <i>ekar ttut</i>... 	Irañetan <i>giñuen</i> , <i>ziñuen</i> , <i>ziñuzten</i> ... Irañetan Burundan bezala: <i>noye</i> (noa), <i>doye</i> (doa)...
	<i>Biyeldu</i> (bidali) baino ez.	<ul style="list-style-type: none"> Ohikoak dira partizipio analogikoak: <i>izendu</i> (izan), <i>yondu/oondu/eondu</i> (egon), <i>ja-kindu</i> (jakin), <i>ibildu</i> (ibili), <i>bieldu</i> (bidali), <i>itzuldu</i> (itzuli)... Moduzko aditzondoetarako <i>-ketan</i>, <i>-(ke)kan</i>: <i>eztulketan</i> (eztulka), <i>laixterkan</i> (laisterka), <i>inbuluzkekan</i>, <i>pirriñekan</i> /txirrinkekan (txirrinka), <i>arrastakan</i>, <i>ozkakan</i>, <i>banakan</i>, <i>furrutekan</i> (zurrutaka)... 	Urritzolan ere bai: <i>izandu</i> (izan), <i>egondu</i> (egon)... Irañetan <i>laixterkan</i> , <i>arriken</i> , <i>inbuluzken</i> , <i>furrutekan</i> ...

BURUNDA	Bakaiku	SAKANA ERDIALDEA	Irañeta- Arakil
<ul style="list-style-type: none"> • B28. Geroaldiko morfema <i>-ko</i>, batez ere, <i>-en</i> gutxiago: <i>etorriko</i>, <i>fanko</i> (joango), <i>emanko</i> (emango), <i>esanko</i> (esango)... • B29. NN_iN_k erako erroa (*-erau- >) <i>-a-</i>: <i>dat</i> (diot), <i>da</i> (dio), <i>dazu</i> (diozu), <i>dazai</i> (diozue), <i>dai</i> (diote)... • B30. Ez da aditzen bigarren pertsonaren marka <i>y</i>- beti: <i>daiz</i> (haiz)... • B31. Aditz sintetikoen iraganeko marka <i>-e</i>: <i>nekiyen</i> (nekien), <i>negon</i> (nengoen), <i>zekiyen</i> (zekien)... • B32. ‘Etorri’ aditza ez da era trinkoa erabiltzen: <i>eldu neiz/naiz</i> (banator)... • B33. ‘Ahal izan’ aditz perifrasia ez da erabilera pleonastikoan baino erabiltzen. Bestelako kasuetan, ahalerako aditz laguntzailearen formak erabiltzen dira: <i>Etortzen al yaiz!</i> (Etortzen ahal haiz!). Bestela: <i>ein dezaket</i> (egin dezaket), <i>etor naiteke...</i> 	<p>Batzuetan ageri da <i>-en</i>: <i>jakin</i>, <i>esain</i> (esanen), <i>ilen</i> (hilen)...</p> <p>Maiz ageri da: <i>yitzan</i>, <i>yeen</i> (huen), <i>yekan</i> (heukan), <i>yekiyen</i> (hekien), <i>yegon</i> (hengoen),</p> <p>(Ikusi aurreko adibideak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bizi-bizirik ageri da <i>-en</i> morfema, <i>-korekin</i> lehian: <i>esanko/esanen/esaan</i> (esan-go), <i>fankolf/fanen/faan</i> (joango), <i>emanko/emanen/emaan</i> (emango)... • NN_iN_k erako erroa (*-erau-) <i>-u-</i> (Etx, Erg) eta <i>-i-</i> (Arb ekialdera): <i>duut/dit</i>, <i>doot/diot</i>, <i>doobiel-/diobel/diozte</i> (dio-te)... • Era sistematikoan ageri da: <i>yeiz</i> (haiz), <i>yitzen</i> (hintzen), <i>yoon</i> (hion), <i>yakan</i> (heukan), <i>yakiyen</i> (hekien)... • Aditz sintetikoen iraganeko marka <i>-a-</i>: <i>zakiyen</i> (zekien), <i>nakan</i> (neukan), <i>zaallen</i> (ze-bilen), <i>nakiyen</i> (nekien)... • Burundan bezala. • Burundan bezala. 	<p>Irañetan <i>-a</i> jakin aditzarekin: <i>nakien</i>, <i>zakien</i>. Urritzolan <i>bazabilen</i> (bazebilena).</p>

BURUNDA	Bakaiku	SAKANA ERDIALDEA	Irañeta- Arakil
C. Sintaxi mailako ezaugarriak			
<ul style="list-style-type: none"> • C1. Intejekzio berberak esparru osoan: <i>Aiaupenani!, Aieneni!, Iyun/iñun dienak!</i> (Inon direnak!), <i>Bierrik!</i> (Beharrik!), <i>Sikia!</i> (Sikiral!), <i>Barratu artio!</i> (Barratu arte), <i>Aixe!, Gexkixe(i)!</i> (gaizkixe)... • C2. Juntagailu hautakari bakarra, <i>o(o)</i>: <i>Ze ein dau, ibazi o galdu?</i> (Zer egin du, irbazi ala galdu?). • C3. Aditz perifrasiek: <i>-t(z)ea eman</i> (<i>-t(z)era eman</i>). • C4. Ez da kausazko perpausetan <i>bait-</i> menderagailua <i>e-</i> rabiltzen, <i>-lako</i> baizik. Oso zabaldua dago, bestalde, <i>zengati... -n</i> menderagailua: <i>Etxia fan da zengati eztazun ots in!</i> (Etxera joan da zerengatik ez diozun hots egin!). • C5. Ez da erabiltzen <i>al</i> partikula galdetzailea: <i>Ikusi dok ze gertatu zayon?</i> (Ikusi duk zer gertatu zaion?). 	<p>Bakaikun - <i>lakoz</i> menderagailua baliatzen dute, baina <i>bait- ez.</i> <i>Zengati... -n</i> ere bai.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Burundan bezala. • Gauza bera. • Aditz perifrasiek: <i>-tia eman</i> (<i>-t(z)era eman</i>): <i>jatia eman</i> (jatera eman), <i>yatia eman</i> (edatera eman), <i>-t(z)en utzi/la-gundu/jakin...</i> • Kausazko perpausetan <i>beit-, -lakos eta zengati... -n</i> menderagailuak baliatzen dira gehienbat. • Burundan bezala. 	

BURUNDA	Bakaiku	SAKANA ERDIALDEA	Irañeta- Arakil		
D. Lexiko mailako ezaugarrriak					
<ul style="list-style-type: none"> • D1. Lexiko komuna: <i>Jangoikuen gerriko</i> (ostadar), <i>ilbeltza</i> (urtarril), <i>garagarzaro</i> (ekain), <i>garil</i> (uztail), <i>urri</i> (irail), <i>lasteil</i> (urri), <i>launbeta</i> (larunbat), <i>iñezture/oinaztura</i> (tximista), <i>fan</i> (joan), <i>etzin</i> (etzan), <i>guai</i> (orain), <i>ago</i> (aho), <i>ator</i> (alkandora), <i>kunkun</i> (apo), <i>gaztanbera</i> (mamia), <i>iruzkilyuzki</i> (eguzki), <i>mi</i> (mingain), <i>biatz</i> (bigun), <i>sor</i> (gor), <i>nafarrei</i> (nafarreri), <i>biboro/bibero</i> (bizki), <i>bieldu</i> (bidali), <i>jaunke/a</i> (zaunka), <i>matxarda</i> (eskailera), <i>ipurteste</i> (ondeste), <i>barga</i> (amilddeg), <i>txindil</i> (dilista), <i>makur</i> (oker), <i>uberka</i> (uharka), <i>ubes</i> (ugatz), <i>matreil</i> (matrail, <i>matagin</i> letagin), <i>galar</i> (egur lehor), <i>iderrosi/iarrosi</i> (astindu), <i>irruti</i> (urruti), <i>bulketu</i> (bultzatu), <i>ukitu</i> (ukitu), <i>majo</i> (ederki)... • D2. Lexiko alderaketa: <table style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="width: 33%; vertical-align: top;"> <i>Orri</i> <i>Barru</i> <i>Domeka</i> <i>Eroan, yan</i> <i>Ira</i> <i>Izeko</i> <i>Izera</i> <i>Jostaiya</i> <i>Kare</i> <i>Nesaki</i> <i>Mutiki</i> <i>Oiya</i> (ohe) <i>Pitsa</i> <i>Uberaxa</i> (igela) <i>Gaztaia</i> <i>Txixa</i> (txiza) <i>Iyo</i> (igo) </td> <td style="width: 33%; vertical-align: top;"> <i>Osto</i> <i>Iyostorra</i> </td> <td style="width: 33%; vertical-align: top;"> <i>Osto</i> <i>Barne</i> <i>Iyende</i> (igande) <i>Yaman, eaman</i> (eraman) <i>Ixtorra</i> (iraztorra, garoa) <i>Izeba</i> <i>Menddere</i> (maindire) <i>Ostotsa</i> (trumoi) <i>Galtziñela</i> <i>Neskato</i> <i>Mutiko</i> <i>Guatze</i> <i>Aparra</i> <i>Zapoziyela, zapittela</i> <i>Gazta</i> <i>Pixe/a</i> <i>Itzo(o)</i> </td> </tr> </table>	<i>Orri</i> <i>Barru</i> <i>Domeka</i> <i>Eroan, yan</i> <i>Ira</i> <i>Izeko</i> <i>Izera</i> <i>Jostaiya</i> <i>Kare</i> <i>Nesaki</i> <i>Mutiki</i> <i>Oiya</i> (ohe) <i>Pitsa</i> <i>Uberaxa</i> (igela) <i>Gaztaia</i> <i>Txixa</i> (txiza) <i>Iyo</i> (igo)	<i>Osto</i> <i>Iyostorra</i>	<i>Osto</i> <i>Barne</i> <i>Iyende</i> (igande) <i>Yaman, eaman</i> (eraman) <i>Ixtorra</i> (iraztorra, garoa) <i>Izeba</i> <i>Menddere</i> (maindire) <i>Ostotsa</i> (trumoi) <i>Galtziñela</i> <i>Neskato</i> <i>Mutiko</i> <i>Guatze</i> <i>Aparra</i> <i>Zapoziyela, zapittela</i> <i>Gazta</i> <i>Pixe/a</i> <i>Itzo(o)</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Etxarrin eta Lakuntzan <i>ostrilleka</i> (ortzadar) ere bai. Lizarragan <i>jangoikuan baranda</i>, Uharten <i>jangoikuan gerriko banda</i>. Uharten <i>kinkon</i> (apo). 	Irañetan <i>jainkuau paxa</i> (ostadar). Irañetan eta Iriberrin <i>zarrapo</i> (apo) eta <i>zaunke</i> (zaunka).
<i>Orri</i> <i>Barru</i> <i>Domeka</i> <i>Eroan, yan</i> <i>Ira</i> <i>Izeko</i> <i>Izera</i> <i>Jostaiya</i> <i>Kare</i> <i>Nesaki</i> <i>Mutiki</i> <i>Oiya</i> (ohe) <i>Pitsa</i> <i>Uberaxa</i> (igela) <i>Gaztaia</i> <i>Txixa</i> (txiza) <i>Iyo</i> (igo)	<i>Osto</i> <i>Iyostorra</i>	<i>Osto</i> <i>Barne</i> <i>Iyende</i> (igande) <i>Yaman, eaman</i> (eraman) <i>Ixtorra</i> (iraztorra, garoa) <i>Izeba</i> <i>Menddere</i> (maindire) <i>Ostotsa</i> (trumoi) <i>Galtziñela</i> <i>Neskato</i> <i>Mutiko</i> <i>Guatze</i> <i>Aparra</i> <i>Zapoziyela, zapittela</i> <i>Gazta</i> <i>Pixe/a</i> <i>Itzo(o)</i>			

BURUNDA	Bakaiku	SAKANA ERDIALDEA	Irañeta- Arakil
D. Lexiko mailako ezaugarrriak			
<i>Ura</i> <i>Ondo, obeto, polito, txarto</i> <i>Guti</i> <i>Eztai</i>	<i>Txarki</i>	<i>Utsela, udse/a</i> <i>Aungi, obeki, poleki, txarki</i> <i>Gutxi</i> <i>Ezkontza</i>	
<i>Autsi</i> (eutsi) <i>Txipi</i> <i>Errapatu</i> ('erreparatu', ohartu) <i>Txindurri</i> <i>Sagona</i> (xaboi) <i>Ibili</i> (eduki)		<i>Auskin, autsin</i> <i>Txiki</i> <i>Guartu</i> <i>Txingurri</i> <i>Jabona</i> <i>Urai, irui, udigi, udii...</i> (eduki)	
<i>Kendu</i> <i>Kurutza</i> <i>Galte</i> <i>Pago</i> <i>Barre</i>		<i>Gendu, jendu</i> <i>Guutze</i> (gurutz) <i>Kalte</i> <i>Fago</i> <i>Farra, parra</i> (Lak, Arr), <i>irri</i> (Erg, Uh, Ir)	
<i>Kipula</i> <i>Galbario</i> <i>Bultzurrun</i>	<i>Tipula</i>	<i>Tipula</i> <i>Kalbayo</i> (kalbario) <i>Gultzurrin</i> (giltzurrun)	<i>Giltzurrin</i> Irañetan.
<i>Musti</i> <i>Jorratu</i> <i>Bedar</i> <i>Itein</i> <i>Narru, nazka, naurri</i> (neurri) <i>Mutxikan ibili</i> (jolastu)	<i>Belar</i>	<i>Busti</i> <i>Forratu</i> <i>Belar</i> <i>Izein</i> (izain) <i>Larru, lazka, laurri</i> <i>Mutxikan ibili</i>	<i>Irañetan naurri</i> eta <i>nazka</i> . <i>Olgatu</i> Irañetan.
<i>Aulubi</i> <i>Masurta</i>	<i>Marrubi</i>	<i>Marrubi</i> <i>Masusta</i>	<i>Irañetan</i> <i>martutse</i> .
<i>Okela</i> <i>Korrika</i> <i>Gabinari</i>	<i>Gaubeinara</i>	<i>Aragi</i> (haragi) <i>Laxterka(n)</i> <i>Iñerexagu</i> (saguzar)	<i>Irañetan</i> <i>gauxirrin</i> .
<i>Amandre</i> <i>Aitajauna</i> <i>Esene</i> <i>Esenatu</i>	<i>Aittune</i>	<i>Amiñe/a</i> (amona) <i>Aittune/a</i> (aitona) <i>Esne, esene</i> (Ergoien) <i>Esnatu, itzerri</i> (Un, Lak, Uh)	<i>Itzerri</i> (Ir), <i>yatzarri</i> (Urritz) <i>Asenei</i> (Ir) <i>Borobil</i> (Ir) <i>Zirrin</i> (Ir)
<i>Azkura</i> <i>Borobil</i> <i>Inara</i> (enara) <i>Biki</i> (bizki)	<i>Biribil</i> <i>Inare</i> <i>Biboru</i>	<i>Asnei, asenei</i> (Erg) <i>Boobil, ponpoluba</i> (Lizgb) <i>Iñere, txirriña</i> (Do) <i>Biboro, bixkiya</i> (Arb), <i>bibero</i> (Lak, Arr) <i>Aatxe</i> (aretxe)	
<i>Txal</i> (Txahal)			

BURUNDA	Bakaiku	SAKANA ERDIALDEA	Irañeta- Arakil
E. Zenbait buru, hainbat aburu			
armiarma	eduki	narra	Igel
<i>Amimoro</i> (Etxarri) <i>Amimora</i> (Arbizu, Lizarragabengo) <i>Armimau</i> (Altsasu) <i>Armimosa</i> (Lakuntza) <i>Amarratza</i> (Olazti) <i>Imermau</i> (Arruazu) <i>Irmimau</i> (Irañeta) <i>Irmiarmario</i> (Uharte) <i>Imirrimau</i> (Urdiain) <i>Mirrimarrau</i> (Bakaiku)	<i>Urai</i> (Etxarri) <i>Urei</i> (Altsasu) <i>Urii</i> (Lakuntza) <i>Udii</i> (Arruazu) <i>Uittu</i> (Dorrao) <i>Irui</i> (Arbizu) <i>Idui</i> (Unanu) <i>Idugi</i> (Uharte) <i>Idiittu</i> (Irañeta) <i>Iruki</i> (Urritzola) <i>Iguri</i> (Olazti) <i>Ibili</i> (Bakaiku) <i>Yon</i> (Lizarraga)	<i>Istaasa</i> (Etxarri) <i>Istresi</i> (Unanu) <i>Estosi</i> (Lakuntza) <i>Entresi</i> (Arbizu) <i>Estrasi</i> (Arruazu, Uharte, Irañeta) <i>Txistezai</i> (Bakaiku) <i>Txistazi</i> (Urdiain)	<i>Zapoziyel</i> (Etxarri) <i>Zapittel</i> (Arbizu, Unanu) <i>Iyel</i> (Irañeta) <i>Ígualaiza</i> (Bakaiku) <i>Apieziyel, Zapieijel,</i> <i>Zapielixter</i> (Lakuntza) <i>Ñaskar</i> (Dorrao) <i>Ubaxa</i> (Urdiain) <i>Uberaxa</i> (Altsasu)
Pikorkatu	Erbinude	Ganbara	Txizagura
<i>Urbeldu</i> (Etxarri) <i>Urgeldu, Yalkitu</i> (Arruazu) <i>Urkaldu</i> (Bakaiku) <i>Bikortu</i> (Urdiain, Arbizu, Irañeta) <i>Yakurri</i> (Urdiain) <i>Yikurri</i> (Altsasu)	<i>Ergueniri</i> (Etxarri) <i>Erginurde</i> (Bakaiku) <i>Erguneri</i> (Altsasu) <i>Ergoniri</i> (Dorrao, Lizarraga, Lizarragabengo, Irañeta) <i>Errekoniri</i> (Arbizu) <i>Ergunera</i> (Urdiain)	<i>Goikoganbara</i> (Urdiain, Bakaiku) <i>Ganboiko</i> (Etxarri) <i>Ganbatxo</i> (Arbizu) <i>Pastarda</i> (Unanu, Dorrao) <i>Safei</i> (Uharte, Irañeta) <i>Safai</i> (Altsasu)	<i>Txixakurre</i> (Burunda) <i>Pixeakurre</i> (Etxarri) <i>Pixegorri</i> (Ergoien) <i>Pixagale</i> (Lakuntza)

ONDORIOAK

Aztertutako honen guztiaren arabera, bi hizkera eremu bereziak ezberdin daitezke Sakana osoan: Burundakoa, alde batetik; eta gainerakoa, Sakana erdialdea eta Arakil, beste aldetik.

Ez dirudi Arakilgo euskara Irañetakoarengandik oso bestelakoa izango zenik. Are gehiago, nire eskuetara iritsitako lekukotzek erakusten dutenez, era bat antzekoak izango genituzke, errortazismo aztarnak ugarituko liratekeelarik Ihabartik ekiadlera. Ondorengoa dira lehentxeago aipatu ditudan lekukotzak: lehenik, Jose Maria Satrustegi jaunak behin baino gehiagotan esan zidan bere haurtzaroan Arruazuko jaietara Ihabarko ‘danbolinderoa’ joaten zela festak alaitzera eta *Erran* izengoitziz ezagutzen zutela, horrela burutzen zuelako ihabartarrak aditz hau; bigarrenik, Jose Maria Satrustegi jaunaren bera ren FLV aldizkarian argitaratutako *Arakilgo sermoiak* artikuluan ageri diren burutzapenak; hirugarrenik, Timoteo Beraza irañetarrak gogoratzen du Ihabarren ‘erran’ eta ez esan erabiltzen zutela bere gazte garaiko ihabartar euskaldunek; eta, azkenik, Urritzolan Bautista Etxarreni egindako grabaketan (Nafarroako Gobernua, 1984, CD-Rom) ageri diren ezaugarriak (Sakana erdialde osoan ageri diren asimilazio aurrerakariak, aferesiak, sinkopak, deklinabideko destinatibo eta instrumental kasuko morfemak, partizipio analogikoak, lexikoa...).

Bestalde, Irañetako euskarak bat egiten du bete-betean Sakana erdialdekoarekin ‘Irañetako hizkera’ (FLV 87, 2004) artikuluko ondorioetan adierazi nuen moduan: *Irañetako euskarak, irinterak, ikuspegi dialektologiko batetik aztertu eta deskribatu ondoren eta bertan agertu zaizkigun ezaugarriak kontuan hartuz, Sakana erdialdeko hizkerarekin bat egiten duela ondoriozta daiteke, jarreraian azalduko ditugun bilakabide eta burutzapenek erakusten digutenaren arabera. Horrela beraz, Sakana erdialdeko hizkeraren barruan sartzekotan, na-farrera euskalkikoa dela baiezta dezakegu, era berean.*

BIBLIOGRAFIA

- ERDOZIA, J. L., *Sakana erdialdeko hizkera*, Nafarroako Gobernua, 2001.
- , “Bakaikuko hizkera”, *FLV*, 84, 2003.
- , “Irañetako hizkera”, *FLV*, 87, 2004.
- , *Sakanako hiztegi dialektologikoa*, Euskaltzaindia, 2004.
- MELERO, Mikel eta MUGICA, Matías, *Nafarroako euskara*, CD-Rom, Nafarroako Gobernua, 1984.
- SATRUSTEGI, J. M., “Arakil aldeko euskara”, *FLV*, 81, 1999.
- URQUIJO, J., “Cartas escritas por el príncipe L.-L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores”, *RIEV*, 2, 1910.
- ZUAZO, K., “Burundako hizkera”, *ASJU*, XXVIII, 1995.
- , “Euskalkiak gaur”, *FLV*, 78, 1998.
- , *Euskalkiak, herriaren lekuak*, Elkar, 2003.

LABURPENA

Oraingo horretan, Sakana osoan (Ziorditik Irurtzunenarino) baliatzen den euskara ez estandarizatuaren ezaugarriak bildu eta erkatu dira, bi eremu nagusi bereizi direlarik orokorrean: Burundako harana mendebaldean, alde batetik; eta Sakana erdialdea ('Barranca') eta Arakil, beste aldetik. Eta erkaketaren ondorioak nabariagoak izan daitezten, eremu bakoitzeko mugako hizkeren ezaugarriak ere azaldu dira. Bakaikoko zenbait ezaugarri jasoak daude, Burunda eta Sakana erdialdearen arteko zubi-lanak egiten dituelako hizkera honek; eta, bestalde, Irañetako ezaugarriak gehienbat eta Urritzolako beste zenbait ere azaldu dira. Lehen herriak, Irañetak, Sakana erdialdeko ekieldean biziak dagoen azken hizkera baliatzen du. Bigarrenak, Urritzolak, berriz, Arakil haraneko azkenetariko lekukotasuna utzi digu.

RESUMEN

En esta ocasión se han recogido y comparado las características del euskara no estandarizado de todo el Valle de Sakana (desde Ziordi hasta Irurtzun), habiéndose diferenciado dos zonas generales: el Valle de la Burunda, en la zona occidental; y la Barranca junto con el Valle de Araquil, en las zonas central y oriental. Y para que el análisis de las características idiomáticas sea más completo, se han recogido también las de los pueblos limítrofes de ambas zonas. De esta forma, están recogidas algunas características de Bakaiku, ya que su habla hace de puente entre el Valle de la Burunda al que pertenece y la Barranca, así como también de Irañeta sobre todo y, en menor cuantía, de Urritzola. El primero de estos pueblos, Irañeta, representa el último vestigio de euskara vivo al este de la Barranca. El segundo, Urritzola, por el contrario, nos ha dejado uno de los últimos testimonios del euskara del Valle de Araquil.

RÉSUMÉ

A cette occasion, les caractéristiques du basque non standardisé de toute la Vallée de Sakana (de Ziordi à Irurtzun) ont été relevées et comparées, en différenciant deux zones générales : la Vallée de la Burunda, dans la zone occidentale ; et la Barranca associée à la Vallée d'Araquil, dans les zones centrale et orientale. Et pour que l'analyse des caractéristiques linguistiques soit plus complète, celles des villages limitrophes de ces deux zones ont également été relevées. Ainsi, on a relevé certaines caractéristiques du parler de Bakaiku, car il est intermédiaire entre celui de la Vallée de la Burunda, à laquelle il appartient, et celui de la Barranca, ainsi que du parler d'Irañeta, en particulier, et, dans une moindre mesure, de celui d'Urritzola. Le premier de ces villages, Irañeta, représente le dernier vestige du basque vivant, à l'est de la Barranca. Le deuxième, Urritzola, nous livre, pour sa part, l'un des derniers témoignages du basque de la Vallée d'Araquil.

ABSTRACT

On this occasion, the characteristics of non-standardized Euskera have been collected from the whole Sakana Valley (from Ziordi to Irurtzun), with there being differences in two general areas: the Burunda Valley in the western area, and la Barranca together with the Araquil Valley in the central and eastern areas. And in order for the analysis of idiomatic characteristics to be as complete as possible, these have also been collected from the bordering villages of both areas. In this way, some characteristics from Bakaiku have been collected, as its speech forms a bridge between the Burunda Valley to which it belongs and la Barranca, as well as from above all Irañeta and, to a lesser

extent, from Urritzola. The first of these villages, Irañeta, represents the last vestiges of Euskara still alive to the east of la Barranca. The second, Urritzola, on the other hand, has left us one of the last testimonies of Euskara from the Araquil Valley.